ATLAS SENTIMENTALA

Egonaldi bat Marokoko berbereen artean

a

Bere bizitzaren une erabakior hartan
jabetu zen Abbas amodioaren kemenaz,
amodioaren ahalmenaz, amodioaren magiaz.
Sentimendu haren indar sortzaile eta eraikitzailea
nabaritu zuen, baita era inkontziente eta ilunean ere,
zeren amodioak sortu, asmatu eta berritzeko gogoa
ekartzen baitugu bihotzera.

Naguib Mahfuz, *El callejón de los milagros*

b

Nik uste nuen, eta oraindik ere hala uste dut,
zoriona ezinezkoa zela terraza bat izan gabe,
baina terrazak aipatzean,
ez naiz inondik ere
azotea europarrei buruz ari...

Fatima Mernissi, *Sueños en el umbral*

c

Afrikara astebeterako joan denak,
liburu bat idatziko du;
hilabete baterako doanak, artikulu bat;
urtebeterako joan denak, deus ez.

Bidaiari anonimoa

d

Lehendabiziko aldiz maitemintzen direnean,
gazteek helmugatzat hartzen dute
amodio berri hori, behin betiko biziko diren
tokia bailitzan; baina ez dira ohartzen
benetan amodio gorabeheren abiapuntua
besterik ez dela, hau da,
oztopo lasterketa baten hasiera...

Rosa Montero, *La hija del Caníbal*

e

Haren etxean dena marroia zen, marroia gehien
erabiltzen zuten egongela eta marroia logela,
eta mutilak logelarako joera izaten zuen, nahiz eta
tarteka ama edo arreba hara agertu eta galdezka hasi:
"Ramon, zerbait al duzu?" Atea kisketaz itxiz gero,
ostera, hamaika bider deitzen zioten:
"Ez daukazu zertan zabaldu, ongi zaudela ziurtatu
baino ez nuen nahi". Eta gauez, ama-arrebak oheratuak
eta lo seko sumatzen zituenean, Ramonek askatasuna
sentitzen zuen lojantzi azpian eskua sartzeko,
eta orduantxe sentitzen zen aske.

Elvira Lindo, *El otro barrio*

f

Mahometarrek, sinestedunak meskitara deitzeko, ez daukate ezkila edo antzeko soinu tresnarik. Horretaz muezinak arduratzen dira; ahots miresgarriekiko gizon horiek minareetara igo eta haietatik lau haizetara zabaltzen dituzte beren doinuak. Kantua, monotonoa iruditu arren, hunkigarria izaten da, batez ere landetan eta magrebaren (ilunabarraren) orduan, gauaren iluna eta isiltasuna egunaren argia eta mugimenduak ordezkatzen hasten direnean. Sarritan, ordutsu horretan, zibilizazioaren eta bizitzaren erosotasunen erdian nagoela, muezinaren kantua etortzen zait gogora, eta oroiminez gogoratzen naiz arabiarren karparekin eta nire gorputz akituak atseden hartzen zuen alfronbratxo zeratsuarekin.

Jose María de Murga "Mairu bizkaitarra", *Recuerdos marroquíes*

g

Elisa Cabo de Agua-n bizi zen, orduan nik hamahiru urte nituen; gure arteko harremanak begiradetan oinarritu ziren, bagenekien gustatuta geundela, baina ez ginen gai izan elkarri fitsik ere esateko. Lumaz egindako marrazki bat oparitzera baino ez nintzen ausartu.

José Luis Sampedro, *La escritura necesaria*

h

Euskaldun peto-petoa dirudien hitz hori (albiste: albiriste) *arabieratik dator* (al-bisara: *berri ona, eta berri ona dakarrenari ematen zaion eskupekoa). Euskaldunok bereizten jarraitzen dugu arabierazko bi adiera horiek, berriari albiste eta berriaren sariari albiste-sari deiturik.*

Anjel Lertxundi, *Letrak kalekantoitik*